



## **LEADER EGITASMOEN JARDUNBIDE ONAK**

### **1. Egitasmoaren izena**

BRIZNA BIOERAIKUNTZA.

### **2. Jasotako laguntzaren deialdiaren urtea: 2017**

### **3. Laguntzeko erabilitako programaren neurria**

- ☒ II. kapitulua: laguntza ekintzailtzari.
- ☐ III. kapitulua: inbertsioak enpresetan eta nekazaritza dibertsifikatzeko.
- ☐ IV. kapitulua: besteren konturako kontratazioa.
- ☐ V. kapitulua: inbertsioak oinarritzko zerbitzuetan eta landa eremuetako herriak berritzeko.
- ☐ VI. kapitulua: etxebizitza.

### **4. Egitasmoaren xedea**

Gaunan (Araba) dagoen enpresa berri bat da, neurrira egindako bioeraikuntzako zerbitzu integralak ematen dituena. Eraikuntzako eta aholkularitzako enpresa bat da, material natural eta gertukoekin eraikitze/birgaitze sistemetan espezializatua. Espezialitate teknikoak hauek dira: jasangarritasuna, bioklimatismoa, eraginkortasun energetikoa eta ahalik eta aztarna ekologiko edo ingurumen-inpaktu txikiena sortzea. Hori guztia biztanleak erosoago eta osasuntsuago bizi daitezen.

### **5. Inbertsio osoa: 41.131,42 euro.**

### **6. Jasotako LEADER laguntza eta beste finantziazio-iturri batzuk**

LEADER laguntza: 21.649,74 euro.

Beste finantziazio-iturri batzuk: 0,00 euro.

### **7. Onuraduna**

BRIZNA DEL NORTE BIOCONSTRUCCIÓN, SMP.

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

### **8. Parte hartu eta/edo lagundu duten erakundeak /**

## **9. Inbertsioa/jarduera non gauzatuko den**

Iruraiz-Gauna (Araba).

## **10. Egitasmoaren deskribapena (egitasmoa jardunbide on bihurtzen duten alderdi berritzaile eta/edo interesgarriak)**

Eraikuntzaren eta birgaitzearen sektorean enpresa berritzailea da, pertsonen, gizartearen eta planetaren osasunaren arloan mozkin ekonomikoak lortu nahi dituen, betiere zentzuzko inbertsioak eginez. Horretarako, bioeraikuntzako eta bioarkitekturako irizpideak hartzen ditu oinarritzat eta, horiei jarraikiz, material biobateragarriak (naturalak/osasungarriak) erabiltzen ditu, ahalik eta aztarna ekologiko txikiena uzten du eta modu etiko eta adeitsuan jarduten du. Gainera, eraikinak energia-sistema eraginkor edo autosufizienteekin hornitzen ditu, energia nulu edo ia nuluko eraikinak sortzeko.

*<https://briznabioconstruccion.es/>*

## **11. Eragina eta emaitzak (nola lagundu duen udalerrria eta eskualdea garatzen)**

Enpresa duela bi urte sortu zen eta, ordudanik, eskualdeko eta inguruko herrietan lan egin du (Zalduondo, Antoñana, Gauna, Dulantzi, Zarate). Enpresak hainbat talde interesdunei ateak ireki dizkie, bere eraikuntza-teknikak sustatzeko eta ezagutzera emateko, guztion artean gure ingurunea hobetu eta zaindu dezagun.